



**Añanako Kuadrillako Emakumeen
Partaidetza eta Intzidientziarako
Plan Sektoriala
2022-2025**

Freepik



Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana




Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



aurkibidea

<i>Sarrera eta testuingurua</i>	3
<i>Aurkezpena</i>	4
<i>Testuingurua</i>	5
<i>Lantzeko prozesua</i>	7
<i>Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen Arteko Interlokuzio eta Partehartzerako Gunea</i>	8
<i>Izaera</i>	9
<i>Oinarriak</i>	9
<i>Ezaugarriak</i>	10
<i>Planaren ardatzak</i>	11
<i>Planaren ardatzak</i>	12
<i>Parte hartzea nahi izatea</i>	14
<i>Parte hartzen jakitea</i>	17
<i>Parte hartu ahal izatea</i>	20
<i>Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa</i>	23
<i>Kudeaketa-eredua</i>	24
<i>Jarraipena eta ebaluazioa</i>	26
<i>Adierazleak</i>	26
<i>Baliabideak</i>	27



Sarrera eta testuingurua

Aurkezpena
Testuingurua
Lantzeko prozesua

Aurkezpena

2022-2025eko Añanako Kuadrillako Emakumeen Partaidetza eta Intzidentziarako Plan Sektorialak, Kuadrillako berdintasun-politikak demokratizatzearen aldeko apustua egiten du, politika horien plangintzan, garapenean eta ebaluazioan emakumeen eragina bultzatuz. Era berean, Kuadrillako emakumeen beharrak eta interesak tokiko politika publikoen garapenean integratzen direla bermatzea du helburu nagusi.

Plana egiteko prozesuak Kuadrillako emakumeen interesak eta kezkek erdigunean jarri nahi izan ditu. Hori lortzeko, diagnosi parte-hartzailea egin da eta neurri handi batean, prozesua hausnarketa eta azterketa kolektiboko guneetan oinarritu da. Gune horietatik, abian jarriko den Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Partaidetza eta Interlokuziorako Egituraren zutabe eta ezaugarri nagusiak definitu dira. Izan ere, jarraian garatuko den Plan Sektorialak egitura hori abian jartzean eta sendotzean jartzen du fokua eta horretarako, egindako diagnostiko parte-hartzailearen aurkikuntza nagusietan oinarritzen da.

Kuadrillak badaki horrelako egitura batek nabarmen aberasten dituela tokiko politikak; izan ere, genero-ikuspegia politika publikoetan zeharkakotasunez txertatzeko estrategian aurrera egiten jarraitzeko funtsezkoa baita. Aldi berean, ez da ahaztu behar egitura horrek arrakasta izateko, ez duela soilik administrazio publikoaren interesei erantzun behar. Hau da, emakumeek berezko sentitzen duten egitura izan behar du, eta bertan parte hartzeko ahalegina egitea merezi duela sumatu behar dute.

Erronka horrek inplikazio politiko eta tekniko handia eskatuko du, baita emakumeen motibazioa eta parte-hartzea bizirik mantentzeko etengabeko ahalegina ere. Añanako Kuadrillak eta, zehazki, Berdintasun Zerbitzuak erronka horri, ilusioz eta ahaleginarekin egin nahi diote aurre, gure gizartean indarrean dauden genero-diskriminazioko egoerak gaitzen joango den Kuadrilla baterantz gehiago hurbiltzeko.

Testuingurua

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planak Gobernu Onaren ataleko V. Programan ezartzen duenez, politika publikoak diseinatzeko, kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko prozesuetan herritarren parte-hartzeak, politika hauek legitimatzen ditu. Halaber, emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea eta emakumeen inzidentzia areagotzea, berdintasuna sustatzeko estrategia nagusia izateaz gain, emakumeak ahalduntzeko tresna ere badela ikusi delako.

Horri dagokionez, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 7. artikuluko k) puntuan ezartzen du toki-administrazioen eskumenei eta eginkizunei dagokiela:

Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

Era berean, Emakundek argitaratutako Berdintasunerako *Politika Publikoen Kalitate Estandarretan*, egiturazko baldintzei buruzko atalean, besteak beste, honako baldintza hauek ezartzen dira *Elkarrizketa Sozialerako Organoei* dagokienez:

- Toki-, foru- eta/edo autonomia-mailan, gutxienez elkarte eta kolektibo feministen artean parte hartzeko eta hitz egiteko guneak egotea.
- Gutxienez, toki, foru eta/edo autonomia mailako elkarte eta kolektibo feministen parte-hartzea bermatzeko prozesuak abian jartzea.

Añanako Kuadrilla partaidetzarako eta elkarrizketarako guneek tokiko berdintasun-politiken garapenean duten garrantziaz jabetu da eta horrela islatzen du **Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako lehen Planak** (2018-2021), honako helburu eta neurri hauek ezartzen dituelarik:

1. Ardatza: Gobernu ona

1.2.3. helburua. Kuadrillako berdintasun politikak garatzean herritarren parte-hartzea sustatu, Kuadrillako eragile klabeekin lan-egiturak eta harremanak sustatuz, eta zehatzago emakume elkarteekin eta banakako emakumeekin.

1.2.3.2. neurria. Koordinazio egitura malgua formalizatu, emakumeen elkarteei eta banakako emakumei zuzendutako gogoeta-ekintza gune bat sortzea helburu duena.

2. Ardatza: Emakumeen ahalduntzea

3.1.2. helburua. Kuadrillako berdintasun politiken planifikazioan emakumeen behar eta interes estrategikoak barneratu.

3.1.2.1. neurria. Emakume elkarteekin harreman eta koordinazio guneek, -eta banakako emakumeekin ere-, besteen artean, Kuadrillako emakumeen behar eta interes estrategikoak biltzeko funtzioak betetzen dituztela bermatu.

3.1.2.2. neurria. Mahai Politikoari eta Berdintasun Batzorde Teknikoari Kuadrillako emakumeen behar eta interes estrategikoak helarazi.

Lantzeko prozesua

Plan Sektoriala egiteko prozesuak bi fase izan ditu:

1. Lehenengo fasean **diagnostiko parte-hartzailea** egin da, aurkikuntza nagusiak dagokion diagnostikoaren dokumentuan jaso direlarik.

Diagnostiko prozesuan jarduera hauek egin dira:

Dokumentazioaren berrikuspena

- Iturri ofizialetatik datozen datu estatistikoak berrikustea (EUSTAT eta INE)
 - Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana 2018-2021
 - Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021 Planaren Jarraipenerako Bitarteko Txostena
 - Pobreziaren feminizazioa azterlana, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak 2019an sustatua
-

Elkarrizketa sakonak

- Profil desberdinetako emakumeei egindako 5 elkarrizketa.

Azterketa- eta ikasketa-gune kolektiboak


- 4 gune kolektibo, guztira 34 emakumek parte hartu dute.
-

Sozializatzeko eta kontrastatzeko taldeak

- Añanako Kuadrillako Berdintasunerako V. Topaketa, 2021eko urriaren 23an egina.
 - Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoa, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkura.
-

2. Plan Sektoriala egiteko abiapuntua diagnostiko-prozesuan egindako aurkikuntza nagusiak izan dira. Azken bertsioa kontraste-saio hauetan oinarrituta egin da:

- Kuadrilako emakume-elkarteei eta banakako emakume zuzendutako talde-saioa.
- Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoaren bilkura.



**Añanako Kuadrillako
Berdintasun Zerbitzuaren eta
Kuadrillako Emakumeen Arteko
Interlokuzio eta
Partehartzerako Gunea**

Helmuga eta ezaugarriak

Izaera

Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuziorako eta Partaidetzarako Guneak kontsultarako espazio bat izan nahi du, lankidetzan parte hartzea erraztuko duena. Era berean, partaidetza-egitura bat da, eta ez da emakumeen eskaera batetik sortzen, baizik eta administrazioaren gonbidapenetik – Kasu honetan, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak emakume elkarte eta banakako emakumeei luzatutako gonbidapenetik.

Abiapuntu horretatik, Kuadrillak ezartzen duen helburu orokorra honako hau da:

Emakumeek tokiko politiketan duten inzidentzia erraztea, genero behar eta interes estrategikoak haien plangintzan, garapenean eta jarraipenean integratzen direla bermatzeko.

Oinarriak

Helburu hori lortzeko, interlokuzio eta partaidetza-egitura bat jarriko da abian, honako zutabe hauetan oinarrituko dena:

- Egitura **malgua**, bere metodologia eta lan-dinamikak egokitzuz joango dena, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta baitere parte hartzen duten emakume elkarte eta banakako emakumeen lehentasunetan, interesetan eta beharretan oinarrituko dena.
- **Ahalduntze-prozesuak** bultzatuko dituen lan-metodologia bat, non, alde batetik, emakumeek maila indibidual zein kolektiboan, beraien egunerokotasunean bizitzen dituzten genero-desberdintasunen eta diskriminazio egoeren kontzientzia hartuko duten; eta bestetik, beren gaitasunak eta autoestimua indartzean eta kontzientzia hartzean beraien interes estrategikoak artikulatzeko gai izango diren.
- Berdintasunerako Zerbitzuak emakumeen interesak integratuko dituen **proposamenak** egin ahal izateko jarraibideak eta lan-dinamikak.
- Koordinazio-mekanismoak, Añanako Kuadrilako egitura organikoaren eta sortutako guneraren arteko engranajea bermatzeko beharrezkoa den informazioa helaraztea.

Ezaugarriak

Zutabe horietan oinarrituta, honako ezaugarri hauek dituen egitura bat jarri nahi da martxan:

- **Denborazkotasuna:** urtean gutxienez bi saio egitea aurreikusten da. Halaber, hala eskatzen duen testuinguru edo egoera jakin batean egonez gero, aparteko saioak egiteko aukera aurreikusten da.
- **Kokapena:** urtean gutxienez bi saio presentzial egitea aurreikusten da. Añanako Kuadrillako udalerrien eta herrien sakabanatze geografikoa kontuan hartuta, bilkuren kokapena txandakakoa izatea proposatzen da, elkarte-sare handiena duten udalerriei lehentasuna emanez, eta, zehazki, jardunean dauden emakume-elkarteei.
Aurrez aurreko saioei lehentasuna eman arren, Covid 19aren ondorioz osasun-krisiak sortutako testuinguruak agerian uzten du parte hartzeko eta interlokuziorako beste modu batzuk kontuan hartu behar direla. Azken hilabete hauetan baliabide telematikoen erabilerari buruz ikasitakoa oinarri hartuta, Añanako Kuadrillak testuinguru hobea du partaidetzarako gune telematikoak antolatzeko. Horri dagokionez, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak Kuadrillako adin nagusiko emakumeei zuzendutako teknologia berrien inguruan antolatutako trebakuntza aipatu behar da.
- **Parte-hartzea:** Kuadrillako berdintasun-teknikariak Berdintasun Zerbitzuko ordezkari gisa sortzen den espazioa dinamizatzear arduratuko da. Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak emakumeen eta emakumeen elkarteei, banaka, parte hartzeko gonbitea egingo die. Beraz, Kuadrillako edozein emakumek parte hartu ahal izango du emakumeen elkarte baten ordezkari gisa edo bere izen propioan.
- **Izena:** Gunearen izena emakumeekin adostuko da lehenengo saioan.



Planaren ardatzak

Parte hartu nahi izatea

Parte hartzen jakitea

Parte hartu ahal izatea

Planaren ardatzak

Plan sektorial hau hiru ardatz hauen arabera egituratzen da:

- **Parte hartu nahi izatea.**

Parte hartu nahi izateak kuadrillako emakumeak sortzen den gunean parte hartzera motibatzen dituenarekin du lotura. Edo, beste era batera esanda, emakumeen energiak mobilizatzearekin, espazio horretan parte hartzeak itotzea baino gehiago kendu eta elikatu egiten duela erakutsiz.

Argi dago mundu guztiak ez duela parte hartu nahi izango intentsitate berdinarekin, ezta gogo maila berarekin ere. Beraz, emakumeak motibatzea lortzen duten alderdietan jarri beharko da arreta. Adibidez, emakumeek beren burua solaskide baliozkotzat jotzea; eroso sentitzea; egitura horri denbora eskaintzea garrantzitsua dela sentitzea.

- **Parte hartzen jakitea.**

Parte hartzen ikasteko funtsezko betekizunetako bat espazioak berak ikasketa hori emateko beharrezko baldintzak ezartzea da. Adibidez, emakumeak eroso sentituko diren espazio segurua izatea, bizipenen aniztasuna epaitu eta zalantzan jarri gabe entzute aktiborako baldintzak ezartzea, estereotipoak eta aurreiritziak apurtzen lagunduko duen espazioa izatea eta hainbat adierazpide eta hizkuntzatatik parte hartu ahal izango duen sormen-gunea izatea.

Ziurrenik, martxan jarriko den gunean, genero-gaietan, teoria feministan eta berdintasun-politika publikoen ezagutzan kontzientziazio eta gaikuntza maila desberdinak dituzten emakumeek parte hartuko dute. Beraz, beharrezkoa izango da sakontzen jakitea, inor alde batera utzi gabe, gutxien hitz egiten dutenei ahotsa ematea inor urduritu gabe, eskura dauden jakintzak aprobetxatzea inor haserretu gabe.

- **Parte hartu ahal izatea.**

Espazio parte-hartzaile batek zentzua izan dezan, zenbait baldintza bete behar dira. Adibidez, ezinbestekoa da eragile bakoitzaren funtzioa eta rola zeintzuk diren adostea eta argi uztea. Hau da, zein izango da emakumeen funtzioa eta eginkizuna eta zein Berdintasun Zerbitzuarena.

Era berean, garrantzitsua da argi geratzea noraino iristen den parte hartzera gonbidatzen duenaren konpromisoa eta zein den maniobratzeko tartea. Azken hori sortuko den interlokuzio eta partaidetza egituraren izaera KONTSULTIBOAK finkatzen du. Horrek ez du esan nahi parte-hartzaileek ez dutenik benetan eragiteko ahalmenik Kuadrillako berdintasun-politiketan. Eragiteko gaitasun hau areagotu egingo da partaideen artean konfiantzazko eta laguntzazko harremanak ezartzea lortzen den heinean, eta horrela gero eta aliantza sendoagoa sortuko da emakumeen eta Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren artean.

Kontutan izan behar da baitere, parte hartzeko ahalmena ez dela soilik definitzen den espazioen edo egituraren menpe egongo, espaziora banaka edo elkarte baten ordezkari gisa hurbildu diren emakumeen bizitza eta antolaketa egiturek ere eragin handia dutelako. Azken kasu horretan, emakume elkarte askoren egiturazko hauskortasunak kanpoko egituretan partehartzeko gaitasuna murrizten du. Egoera horri irtenbidea ematea ez da erraza, baina komeni da kontuan hartzea, gutxienez, ordezkarien parte-hartzea eskatzerakoan.

Parte hartzea nahi izatea

Ardatz honen **erronka** nagusia lortu beharreko helburu honetan laburbiltzen da:

Emakumeen energiak mugiaraztea, gune horretan parte hartzeak kendu baino gehiago eman eta ito baino gehiago elikatu egiten duela erakutsiz.

Egindako partaidetza-diagnostikoaren aurkikuntza nagusiek adierazten duten bezala, emakumeak motibatzeak, besteak beste, emakumeak eta haien egunerokotasuna erdigunean jartzea eskatuko du. Horretarako, funtsezkoa izango da:

- Espazioa dinamizatzea, esperientziak partekatzen eta elkar ezagutzen laguntzeko.
- Aniztasuna erakarriko duen espazio bat sortzeko estrategiak diseinatzea, emakume gazteagoak eta jatorri kultural desberdinetakoak erakartzeko ahalegin berezia eginez.
- Covid 19aren ondorioz sortutako osasun-krisiak emakumeen bizitzan izan duen eta izaten jarraitzen duen eragina kontuan hartzea. Horri dagokionez, arreta berezia eskatuko du isolamendu sozialak landa-ingurunean izandako eraginak, isolamendu horrek, osasun-krisiaren aurretik ere, eragin nabarmena baitzuen emakumeen bizitzan.
- Kuadrilako berdintasun-politikak lantzea, emakumeen eguneroko esperientzia eta bizipenekin lotuta.
- Egindako lanaren emaitzak eta horiek kuadrilako berdintasun-politiken plangintzan eta garapenean duten eragina etengabe itzultzea.
- Koadrilako Berdintasun Zerbitzuak eta emakume elkarteek antolatutako jardueren plangintza koordinatua egiteko jarraibideak ezartzea.

Ardatz honetarako adostutako helburuak eta neurriak bi **helburu estrategiko** hauen arabera banatzen dira:

1. *Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuziorako eta Partaidetzarako Egitura* sortzea, emakumeen esperientziak eta bizipenak erdigunean kokatzeko.
2. Kuadrillako emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak erabaki hartze prozesuetan integratzea.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetzarako Gunea sortzea, emakumeen esperientziak eta bizipenak erdigunean kokatzeko.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
			2022	2023	2024	2025
<p>1.1. Kuadrilako emakumeek aurre egin behar dieten genero desberdintasun eta diskriminazio egoeren inguruko kontzientzia hartzea bultzatzea, esperientziak sozializatuz eta elkar ezagutza sustatuz.</p>	<p>1.1.1. Interlokuzio eta partaidetzarako gunearen bilkuretako gai-zerrendan esperientziak gizarteratzeko eta elkar ezagutzeko denbora eta espazioa sartzea.</p> <p>1.1.2. Interlokuzio eta partaidetza egituraren saioetan esperientziak gizarteratzearen bitartez kontzientzia lantzeko dinamikak txertatzea.</p> <p>1.1.3. Saio bakoitzean eskualdeko emakume batek lehen pertsonan aurkeztutako esperientzia baten berri ematea</p>	Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua	2022	2023	2024	2025
<p>1.2. Interlokuzio eta partaidetza gunean parte hartzen duten emakumeen profilen aniztasuna areagotzea, emakume gazte eta etorkinengan arreta berezia jarritz.</p>	<p>1.2.1. Koordinazio-bideak ezartzea etorkinei zuzendutako programekin – Bereziki emakumeei zuzendutakoekin – eta etorkinen elkarrekin, emakume etorkinak interlokuziorako eta koordinaziorako gunean integratzen laguntzeko.</p> <p>1.2.2. Emakume gazteek parte hartzen duten ekimen, erakunde eta topaguneekin koordinatzeko bideak ezartzea, interlokuziorako eta koordinaziorako gunean beraien parte hartzea areagotzeko.</p>	Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua	2022	2023	2024	2025
<p>1.3. Emakumeen esperientziak eta bizipenak koadrilako berdintasun-politiken erdigunean kokatzea.</p>	<p>1.3.1. Interlokuzio eta partaidetza gunearen saioetako gai-zerrendan emakumeen eguneroko esperientzietan eragin handiena duten kuadrilako berdintasun-politikei lehentasuna ematea.</p> <p>1.3.2. Agendan sartzen diren kuadrilako berdintasun-politikak lantzea, emakumeen esperientziekin duten loturatik abiatuta.</p> <p>1.3.3. Gai-zerrendan Berdintasun Zerbitzuak eta emakume-elkarrekin antolatutako jardueren plangintza koordinatua sartzea– baitere jarraipena eta ebaluazioa –, erdigunean emakumeen interesak kokatuz.</p>	Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua	2022	2023	2024	2025

2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kuadrillako emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak erabakiak hartzeko prozesuetan integratzea.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
<p>2.1. Politikariek Kuadrillako emakumeen beharrei eta interesei buruz duten ezagutza areagotzea</p>	<p>2.1.1. Landutako edukiak eta <i>Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean</i> landutako proposamenak biltzeko eta sistematizatzeko tresnak prestatzea.</p> <p>2.1.2. <i>Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Elkarrizketa eta Partaidetza Egiturak</i> landutako eduki eta proposamenak Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoaren bilkuretako gai-zerrendan sartzea.</p> <p>2.1.3. Gobernu Batzordearen gai-zerrendan <i>Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Guneak</i> landutako proposamenak onartzeko neurriak eta ekimenak sartzea.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	2022	2023	2024	2025
<p>2.2. <i>Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen Interlokuzio eta Partaidetza Gunearen</i> arteko engranajea erraztea Kuadrillako egitura organikoan.</p>	<p>2.2.1. Berdintasunerako Zerbitzuaren, Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Teknikoaren, Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoaren eta Kuadrillako Batzarraren artean informazioa koordinatzeko eta transmititzeko mekanismoak indartzea.</p> <p>2.2.1. <i>Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean egindako proposamenetatik abiatuta landutako neurrien</i> itzulketak egitea.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p> <p>Berdintasunerako Mahai Politikoa</p> <p>Berdintasunerako Mahai Teknikoa</p>	2022	2023	2024	2025

Parte hartzen jakitea

Kasu honetan, Kuadrillako berdintasun-politikek eta, ondorioz, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak **erronka** honi egin behar diote aurre:

Emakumeak eroso eta seguru sentituko diren gune bat sortzea, beren bizipenak partekatzeko, iritziak emateko eta sortzen diren hausnarketetan ekarpenak egiteko.

Egindako diagnostikoaren aurkikuntzetan oinarrituta, eta diagnostikoan parte hartu duten emakumeek kontatzen digutena kontuan hartuta, espazio seguru eta eroso bat sortzeak ondokoa suposatzen du:

- Transmititzen diren edukien ulermena erraztuko duen hizkuntza erabiltzea, generoarekin lotutako gaien inguruko kontzientziazio eta gaikuntza-maila desberdinak kontuan hartuta. Era berean, garrantzitsua izango da genero politikekin eta diskurtso feministarekin lotutako funtsezko kontzeptuen erabilera eta esanahia lantzea.
- Emakumeekin batera, formatu malgu bat adostea – lana giro informal batekin uztartuko duena – eta parte hartzeko formatu eta metodologia berrietara irekita egongo dena.
- Genero eredu eta roletatik datozen eta emakumeek eremu publikoan parte hartzea zailtzen duten oztopoak gainditzeko tresnak eskaintzea.
- Norberaren bizipenak zalantzan jartzen eta epaitzen ez dituen entzute aktiborako baldintzak ezartzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da errotutako estereotipoak eta aurreiritziak lantzea, hala nola, emakume etorkinen ingurukoak.

Erronka horri erantzuteko adostutako helburuak eta neurriak honako **helburu estrategiko** hauen arabera multzokatzen dira:

- Emakumeen interesei eta kezkei erantzungo dieten partaidetza eta interlokuzio formatu berrietara begiratzea.
- Aniztasunaren integrazioa zailtzen duten genero-ereduekin eta rolekkin lotutako estereotipoak eta aurreiritziak gainditzea, ikuspegi interseksionaletik.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA

Emakumeen interesei eta kezkei erantzungo dieten partaidetza eta interlokuzio formatu berrietara begiratzea.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
<p>3.1. Emakumeak eroso eta seguru sentituko diren espazio bat sortzea</p>	<p>3.1.1. Emakumeen interes eta kezken araberako etengabeko egokitzapena ahalbidetzeko, formatu ireki eta malgua erabiltzea, partaidetza-dinamiken bidez.</p> <p>3.1.2. Saioetan giro informala sortzen duten neurriak eta dinamikak sartzea, hala nola kafe tertulia formatua.</p> <p>3.1.3. Kanpoko laguntza izatea, formatu tradizionalenak gaingitzen dituzten partaidetza eta interlokuzio espazioen dinamizazioan trebatzeko.</p> <p>3.1.4. Emakumeek eremu publikoan parte hartzeko eta eragiteko duten gaikuntza indartzeko prestakuntza-pilulak sartzea saioetan.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>
<p>3.2. Komunikazioa bultzatzen duen eta parte hartzen duten emakumeen genero-interes estrategikoak artikulatzea ahalbidetzen duen hizkera inklusiboa erabiltzea.</p>	<p>3.2.1. Saioetan pixkanaka berdintasun-politikekin eta diskurtso feministarekin lotutako funtsezko kontzeptuen esanahiaren eta erabileraren inguruko prestakuntza-pilulak sartzea.</p> <p>3.2.2. Hizkuntza erraza erabiltzea, helarazitako edukiak ulertzen eta sortzen diren eztabaida eta hausnarketetan emakume guztien parte hartzea errazteko.</p> <p>3.2.3. Dekalogo bat adostea emakumeekin batera. Dekalogo horretan, besteak beste, adieraziko da sortzen den espazioak ongi etorria ematen diela adierazpen modu ezberdinei – errespetua eta entzute aktiboa muga bezala ezarriz.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>

4. HELBURU ESTRATEGIKOA

Aniztasunaren integrazioa zailtzen duten genero ereduekin eta rolek in lotutako estereotipoak eta aurreiritziak gainditzea, ikuspegi interseksionaletik.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
<p>4.1. Aniztasuna barneratuko duen espazio inklusiboa sortzea.</p>	<p>4.1.1. Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean entzute aktiboa bermatzeko beharrezkoak diren itunak eta konpromisoak adostu eta formalizatzea. Dekalogo horretan, parte hartzeko jarraibideak gidatuko dituzten oinarritzko arau, printzipio eta balioak ezarriko dira.</p> <p>4.1.2. Saioetan entzute aktiboaren inguruko prestakuntza-pilulak pixkanaka sartzeko.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>
<p>4.2. Aniztasunetik parte-hartzea zailduko duten aurreiritzi eta estereotipoetatik libre dagoen espazio bat lortzea.</p>	<p>4.2.1. Emakumeekin adostutako dekalogoan aniztasunarekiko errespetua sartzeko, ikuspegi interseksionaletik.</p> <p>4.2.2. Prestakuntza-pilulak sartzeko saioetan, sustraitutako aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko, bereziki emakume etorkinak baztertzeko mekanismo gisa funtzionatzen dutenetan arreta jarri.</p> <p>4.2.3. Emakume etorkinen esperientziak ikusarazteko neurri espezifikoak ezartzea.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>

Parte hartu ahal izatea

Ardatz honen helburuek eta neurriek ondoko **erronka** lortu nahi dute:

Emakume guztiak Berdintasun Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean baldintza berdinetan parte hartzeko aukera bermatzea.

Erronka horri aurre egiteko, besteak beste, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- Emakumeei beharrezko informazioa ematea, Kuadrillako berdintasun-politiken garapenaren inguruan sortzen diren eztabaida eta hausnarketetan parte hartu ahal izateko. Ildo horretan, asmoa da Kuadrillako emakumeentzako interlokuzio eta partaidetza-egitura informazio iturri izatea tokiko berdintasun-politiken inguruan.
- Emakumeekin informazioa zabaltzeko kanal ez-presentzialak adostea, Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko koordinazioa errazteko.
- Emakumeen mugikortasuna eta zaintza-lanen, enpleguaren eta Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Guneko saioetan parte hartzeko bateragarritasuna errazteko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzea.
- Emakumeen parte-hartzea zailtzen duten oztopoak identifikatzen jarraitzea, hortik aurrera neurri espezifikoak ezarri ahal izateko.

Abiapuntu horretatik, parte hartu ahal izatea ardatza honako **helburu estrategiko** hauen arabera egituratzen da:

- Kuadrillako berdintasun-politiken inguruan emakumeek duten ezagutza handitzea, politika horiek diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen laguntzeko.
- Koadrilako emakumeek parte hartzeko eta inzidentziarako espazioetara iristeko dituzten oztopoak gainditzea.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA


Kuadrillako berdintasun-politiken inguruan emakumeek duten ezagutza handitzea, politika horiek diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen laguntzeko.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
<p>5.1. Emakumeek Kuadrillako berdintasun-politiken inguruan duten ezagutza hobetzea</p>	<p>5.1.1. Saioen deialdietan jorratuko diren gaiei buruzko oinarrizko informazioa sartzeari. Beharrezkotzat joz gero, landuko diren politikak, ekimenak edo programak modu grafiko eta errazean laburbilduko dituen idatzizko dokumentazioa erantsiko da.</p> <p>5.1.2. Bilkuren gai-zerrendan, landuko diren gaien sarrera eta azalpena sartzeari. Horri dagokionez, azalpen-denbora mugatu beharko da, jorratutako gaiak emakumeen esperientziekin lotzen lagunduko duten partaidetza-dinamikak bultzatzeko.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>
<p>5.2. Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko komunikazio-bideak indartzea.</p>	<p>5.2.1. Emakumeekin informazioa komunikatzeko eta transmititzeko kanal ez-presentzialak (telematikoak) adostea, Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko koordinazioa errazteko.</p> <p>5.2.2. Berdintasunerako Zerbitzuak kudeatutako espazio birtual bat sortzea, emakumeek Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interluzio eta Partaidetza Gunean lantzen diren gaien inguruko esperientziak eta funtsezko informazioa partekatu ahal izateko.</p> <p>5.3.3. Berdintasun Zerbitzuak emakumeei teknologia berrien erabileran laguntza eta gaikuntza eskaintzen jarraitzea, saio birtualetan beraien partehartzea errazteko.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>

6. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kuadrilako emakumeek parte hartzeko eta inzidentzia espazioetara iristeko dituzten oztopoak gainditzea.

Helburu espezifikoak	Neurriak	Arduraduna	Kronograma			
<p>6.1. Zaintza-lanen, enpleguaren eta Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean parte hartzeko bateragarritasuna erraztea</p>	<p>6.1.1. Garraiobidea eskaintzea, norberaren ibilgailurik ez duten emakumeei saio presentzialetarako sarbidea errazteko.</p> <p>6.1.2. Haurtzaindegi-zerbitzua eskaintzea, emakumeek aurrez aurreko saioetan parte har dezaten.</p> <p>6.1.3. Nekazaritza-egutegia kontuan hartzea saioak planifikatzerakoan.</p> <p>6.1.5. Arkitektura-oztoporik gabeko espazioetan aurrez aurreko saioak egitea, mugikortasun urriko emakumeen parte-hartzea errazteko.</p> <p>6.1.4. Emakumeek saioetan parte hartzea zailtzen duten oztopoak identifikatzen jarraitzea, horiek gainditzeko lagunduko duten neurriak planifikatu ahal izateko.</p>	<p>Kuadrillako Berdintasunerako Zerbitzua</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>	<p>2024</p>	<p>2025</p>



Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa

Kudeaketa-eredua
Jarraipena eta ebaluazioa
Baliabideak

Kudeaketa-eredua

Plan Sektorial honen kudeaketak engranaje zuzena du 2018-2021rako Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren kudeaketarekin. Ildo horretan, Plan Sektorialaren operatibizazioa Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak egiten eta koordinatzen dituen Urteko Plan Operatiboetan txertatuko da, Berdintasunerako Mahai Teknikoaren eta Berdintasunerako Mahai Politikoaren partaidetzarekin, eta Kuadrillako Batzordeak onartu beharko du.

Abiapuntu horretatik, jarraian, Plan Sektorial honen garapenaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren inguruko erantzukizunen banaketa laburbiltzen da.

Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Bera izango da Berdintasunerako Zerbitzuaren eta *Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunea* abian jartzeko eta sendotzeko lidergoa izango duena. Beraz, erantzukizunen banaketari dagokionez, Berdintasun Zerbitzuari dagokio:

- Saioak dinamizatzea.
- Alderdi logistikoak kudeatzea: deialdia, gai-zerrenda egitea, funtsezko informazioa bidaltzea, saioak egiteko beharrezko azpiegitura bermatzea eta plataforma telematikoak kudeatzea.
- Landutako edukiak eta landutako proposamenak modu argian sistematizatzea eta jasotzea.
- Landutako edukiak eta landutako proposamenak erabakiak hartzeko eta lan egiteko guneetara helaraztea— Berdintasunerako Mahai Teknikoa, Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoa eta Kuadrillako Batzordea.
- Landutako edukietatik eta *Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean* landutako proposamenetatik eratorritako eta adostutako neurrien itzulketa.
- Indarrean dagoen Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako plan operatiboaren eta Plan honen operatibizazioaren arteko engranajea ziurtatzea.
- Plan Sektorialaren jarraipena eta ebaluazioa koordinatzea eta gidatzea.

Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Teknikoa:

- Gai-zerrendan sartzea *Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Elkarrizketa eta Partaidetza Egituraren* ondoriozko proposamenak.

- Zeharkako ikuspegi batetik, *Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Elkarrizketa eta Partaidetza Egituraren* ondoriozko proposamenak sartzea Urteko Plangintza Operatiboen prestaketan.
- Plan Sektorialaren garapenaren jarraipena egitea, urteko plan operatiboen bidez.

Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoa:

Kuadrillako Berdintasunerako Mahai Politikoari dagokio:

- *Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunea* bultzatu eta baliozkotzea.
- Gai-zerrendan sartzea eta *Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean* landutako edukiak eta proposamenak.
- Udal bakoitzari helaraztea eta tokiko gobernu-taldeekin partekatzea Berdintasunerako Mahai Politikoan landutako proposamenak, *Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunearen* ondorio direnak.
- Planaren ezarpenaren eta betearazpenaren jarraipena egitea.

Kuadrillako batzarra:

- Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunea abiaraztea onartzea.
- Egitura horren sendotzearen jarraipena egitea, hau bermatzeko behar diren neurriak onartuz. Zehazki, funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabideen hornidura.

Jarraipena eta ebaluazioa

Plan sektorial honen ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa honako hauen bidez egingo da:

- Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak egin eta koordinatzen dituen urteko plan operatiboak. Esan bezala, Plan Sektorialaren operatibizazioa Berdintasunerako Planaren Urteko Plan Operatiboan esparruan egingo da. Plan horiek urteko jarraipen-sistema bat dute, Añanako Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean zehazten dena.
- Azken ebaluazio bat, Planaren indarraldiaren amaierarekin bat datorrena eta datozen urteetarako erronkak ezartzen dituen.

Adierazleak

Jarraian aurkezten den adierazle multzoa jarraipen eta ebaluazio sistemaren parte da. Planaren helburu espezifikoetarako aplikatutako prozesu-adierazleak dira eta planifikatutakoa zein neurritan bete den jakitzea errazten dute aldi berean, ekintzen garapenak adostutako helburuak lortzen zenbateraino lagundu duen aztertuz.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA

Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetzarako Gunea sortzea, emakumeen esperientziak eta bizipenak erdigunean kokatzeko.

1.1. Helburu espezifikoa

Kuadrillako emakumeek aurre egin behar dieten genero desberdintasun eta diskriminazio egoeren inguruko kontzientzia hartzea bultzatzea, esperientziak sozializatuz eta elkar ezagutza sustatuz.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeek duten pertzepzioa, aurrez aurre dituzten genero-diskriminazioei buruzko kontzientzia-mailari dagokionez.	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Esperientziak eta ezagutza trukatzeko saioetan emandako denboraren %	Gai-zerrenda eta bilkuretako akta: bilkuretako denboraren % 60 gutxienez.
Emakumeek saioetan duten parte-hartze mailari buruz duten pertzepzioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

1.2. Helburu espezifikoa 1.2.

Interlokuzio eta partaidetza gunean parte hartzen duten emakumeen profilen aniztasuna areagotzea, emakume gazte eta etorkinengan arreta berezia jarritz.

Informazio-iturria/Helburua	Informazio-iturria/Helburua
Saioetan parte hartzen duten emakume gazteen % (35 urtetik beherakoak)	Bilkuretako akta: saioetako denboraren % 20, gutxienez.
Saioetan parte hartzen duten emakume etorkinen %	Bilkuretako akta: saioetako denboraren % 25, gutxienez.

Helburu espezifikoa 1.3.

Emakumeen esperientziak eta bizipenak koadrilako berdintasun-politiken erdigunean kokatzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Landutako gaien eta eguneroko esperientzien arteko loturari buruz emakumeek duten pertzepzioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

2. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kuadrillako emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak erabakiak hartzeko prozesuetan integratzea.

Helburu espezifikoa 2.1.

Politikariak Kuadrillako emakumeen beharrei eta interesei buruz duten ezagutza areagotzea

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak egindako proposamen-kopurua, <i>Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean</i> oinarrituta.	Berdintasun Zerbitzuaren txostenak: proposamen 1 urteko.
Gai-zerrendan sartutako eta Berdintasunerako Mahai Teknikoan eztabaidatutako proposamenen kopurua.	Berdintasunerako Mahai Teknikoaren aktak: proposamen 1 urteko
Egindako proposamenak biltzen dituen Kuadrillako Batzarrean onartutako neurrien kopurua.	Kuadrillako Batzarrearen aktak: 1-5 proposamen urteko.

Helburu espezifikoa 2.2.

Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen Interlokuzio eta Partaidetza Gunearen arteko engranajea erraztea Kuadrillako egitura organikoan.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Berdintasunerako Mahai Teknikoak <i>Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunearekin</i> zerikusia duten gaiei buruz egindako saioen %.	Berdintasunerako Mahai Teknikoaren aktak: % 80
Berdintasunerako Mahai Politikoak <i>Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Elkarrizketa eta Partaidetza Egiturarekin</i> zerikusia duten gaiei buruz egindako saioen %.	Berdintasunerako Mahai Politikoaren aktak: % 80
Kuadrillako Batzarrak <i>Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Emakumeen arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunearekin</i> zerikusia duten gaiei buruz egindako saioen ehunekoa.	Berdintasunerako Mahai Politikoaren aktak: % 50
Egitura horretatik egindako proposamenetatik abiatuta hartutako neurriei buruz jasotako itzulketari buruz emakumeek egiten duten balorazioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA

Emakumeen interesei eta kezkei erantzungo dieten partaidetza eta interlokuzio formatu berrietara begiratzea.

Helburu espezifikoa 3.1.

Emakumeak eroso eta seguru sentituko diren gune bat sortzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeen balorazioa saioen formatuari buruz	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Emakumeek espazioari buruz duten pertzepzioa: segurtasunaren eta erosotasunaren pertzepzioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

Helburu espezifikoa 3.2.

Komunikazioa bultzatzen duen eta parte hartzen duten emakumeen genero-interes estrategikoak artikulatzea ahalbidetzen duen hizkera inklusiboa erabiltzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeek saioetan erabilitako hizkera eta terminoen ulermen-mailari buruz duten pertzepzioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA

Aniztasunaren integrazioa zailtzen duten genero ereduekin eta rolek in lotutako estereotipoak eta aurreiritziak gainditzea, ikuspegi intersektionaletik.

Helburu espezifikoa 4.1.

Aniztasuna hartuko duen gune inklusiboa sortzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Entzute aktiboaren baldintzak ezartzeko adostutako itunen eta konpromisoen erabilgarritasunari buruz emakumeek duten balorazioa.	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Entzute aktiboaren inguruko prestakuntza-pilulei buruz emakumeek duten balorazioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

Helburu espezifikoa 4.2.

Aniztasunetik parte hartzea zailduko duten aurreiritzi eta estereotipoetatik libre dagoen espazio bat lortzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Aniztasunetik parte hartzea zailtzen duten estereotipoen eta aurreiritzien bilakaerari buruz emakumeek duten balorazioa.	Elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan oinarritutako pertzepzio kualitatiboa (bertako emakumeen pertzepzioa eta etorkinenak bereiziz).
Aniztasunetik parte hartzea zailtzen duten estereotipoen eta aurreiritzien bilakaerari buruz Berdintasun Zerbitzuak egindako balorazioa.	Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketatik abiatuta.

5. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kuadrillako berdintasun-politiken inguruan emakumeek duten ezagutza handitzea, politika horiek diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen laguntzeko.

Helburu espezifiko 5.1.

Emakumeek Kuadrillako berdintasun-politiken inguruan duten ezagutza hobetzea

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeek berdintasun-politiken inguruan duten ezagutza-mailari buruz duten pertzepzioa	Galdetegia: pixkanakako igoera, 10etik 7ko baloraziora iritsi arte (Plana ezarri eta 4 urtera). Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Berdintasun Zerbitzuak emakumeek berdintasun-politiken inguruan duten ezagutza-mailari buruz duen pertzepzioa	Galdetegia: pixkanakako igoera, 10etik 7ko baloraziora iritsi arte (Plana ezarri eta 4 urtera). Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketatik abiatuta.

Helburu espezifiko 5.2.

Berdintasunerako Zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko komunikazio-bideak indartzea.

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeek abian jarritako kanal eta espazio telematikoak baloratzea (sarbidea, erabilgarritasuna, erabilera, etab.)	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Berdintasun Zerbitzuak abian jarritako kanal eta espazio telematikoak baloratzea (erabilgarritasuna, emakumeen erabilera, kudeatzeko zailtasunak, etab.)	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Tresna telematikoetan trebatzearen inguruan jasotako laguntzari buruz emakumeek duten balorazioa	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarrizketetatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.

6. HELBURU ESTRATEGIKOA

Kuadrillako emakumeek parte hartzeko eta intzidentzia espazioetara iristeko dituzten oztopoak gainditzea.

Helburu espezifikoak 6.1.

Zaintza-lanen, enpleguaren eta Kuadrillako Emakumeen eta Berdintasun Zerbitzuaren arteko Interlokuzio eta Partaidetza Gunean parte hartzeko bateragarritasuna erraztea

Adierazleak	Informazio-iturria/Helburua
Emakumeek eskainitako zerbitzuei buruz duten balorazioa (garraioa eta zaintza).	Galdetegiaren bidez: batez besteko balorazioa 10etik 7 Pertzepzio kualitatiboa, elkarriketatik eta eztabaida-taldeetatik abiatuta.
Kontziliazioa errazteko ezarritako neurrien bilakaera (neurri-kopurua, neurrien tipologia, neurrien erabilera-maila)	Berdintasun Zerbitzuak egindako txostenak.

Baliabideak

Plan Sektorialaren ezarpenak bi baliabide nagusi izango ditu:

- Kuadrillako berdintasun-teknikaria. Erantzukizunen banaketan ezartzen den bezala, funtsezko figura izango da Planaren garapenean, jarraipenean eta inplementazioan. Hori dela eta, lanaldiaren % 10-15 inguru eskainiko duela aurreikusten da.
- Baliabide ekonomikoak: urteko baliabide ekonomikoen aurreikuspena honako hau da:
 - Garraio-zerbitzua (urtean 2 saio presentzial): 350€/urtean
 - Hartzaindegi-zerbitzua (urtean 2 saio presentzial): 400€/ urtean
 - Kanpoko babesa espazioaren dinamizazioan: 1.200€/ urtean
 - Komunikazio-kanalak eta espazio birtuala diseinatzeko eta ezartzeko kanpo-laguntza: 2500€/ urtean
 - Azken ebaluazio txostena: Aurrekontua Plan Sektorialaren azken inplementazio urtean egingo da.